

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► **Udal Osoko Bilkura - Ayuntamiento Pleno**

► **Akta 2019ko Ekainak 15**

Acta **15 de Junio de 2019**

UDALBATZA BERRIAREN ERAKETARAKO BILKURAREN AGIRIA
ACTA DE LA SESION CONSTITUTIVA DEL NUEVO AYUNTAMIENTO

LEKUTURIKO ZINEGOTZIAK /CONSEJALES ASISTENTES

EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ-PNV)

Doña Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andrea
Doña Sara Oceja Salazar andrea
Don Ager Sardui Azkoaga jauna
Doña Josune Escota Bisbal andrea
Don Jon Sergio Atxotegi jauna
Doña Joana de Irala Bizkarra andrea
Doña Malen Urkullu Arieta-Araunabeña andrea
Doña Ainhoa Ortueta Etxebarria andrea

EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU-DURANGO)

Doña Ima Garrastatxu Urbaneja andrea
Don Iker Urkiza Quilez jauna
Doña Ane Abanzabalegi Areitio andrea
Don Aritz Bravo Zubillaga jauna
Doña Mariam Bilbatua Perez andrea
Don Juan Antonio Bueno Moreno jauna
Doña Garazi Errasti Silloniz andrea

ELKARREKIN PODEMOS - HERRIAREN ESKUBIDEA - INDEPENDIENTEAK
(Podemos, Herriaren Eskubidea, Ezker Anitza-IU, EQUO Berdeak)

Don Julian Rios Santiago jauna
Doña Neskutz Rodríguez Ormazabal andrea
Don Jorge Varela Dorrio jauna
Doña María Oñate Ereñaga andrea

SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK


Doña Jesica Ruiz Perez andrea
Don Fernando Castillo Rodríguez jauna

SECRETARIO / IDAZKARIA

Don Ramon Sorarrain Tolosa Jauna

INTERVENTOR / KONTUHARTZAILEA

Don Jokin Palacio Pérez Jauna



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► Udal Osoko Bilkura - Ayuntamiento Pleno

► Akta 2019ko Ekainak 15

Acta 15 de Junio de 2019

Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, 2019ko Ekainaren 15eko 12:00retan, ekainak 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195 artikuluan ezarritakoa batez, lehen deialdian, eta Udalbatzaren eraketa-bilkura ospatu asmoz, arestian agertzen diren zinegotziak biltzen dira, behin behingoz erakustagiriak aurkeztu ondoren, euren pertsonalitatea ziurtatuz eta elkartezintasun, jarduera eta korporazioko kideen interes lerrokategietan inskribatzeko ondasunei buruzko aitorpenaren aurkezpena ziurtatuz.

MAHAIAREN ERAKETA

Adinean nagusiena den Mariam Bilbatua Pérez andrea eta Malen Urkullu Arieta-Araunabeña andrea, zinegotziek osatzen dute adin mahia, Tokoki Hauteskunde Batzordeak igorritako ziurtagienek adierazten dutenaren arabera, den Mariam Bilbatua Pérez batzarburu delarik, adinean nagusiena delako eta mahaiaren Idazkaria Udalekoa den Ramon Sorarrain Tolosa jauna izanik.

UDALBATZA BERRIAREN ERAKETA

Hautatutako zinegotzi guztiak aurkeztu direla ziurtatu ondoren eta zinegotzi karguko jabetzeari dagozkion legezko izapideak buruturik, Mahaiko Batzarburuak korporazio berria legalki eratu dela aldarrikatzen du.


En la Sala Capitular de la Casa Consistorial a las 12:00 horas del día 15 de Junio de 2019, en primera convocatoria en cumplimiento de lo establecido en el artículo 95 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de Junio y a los efectos de celebrar sesión constitutiva del Ayuntamiento, se reúnen los Concejales electos que arriba se expresan, quienes han presentado provisionalmente sus credenciales, acreditando su personalidad y justificando la presentación de las oportunas declaraciones de causas de incompatibilidad, actividades y de bienes patrimoniales a efectos de su inscripción en los Registros de Intereses de los miembros de la Corporación.

FORMACION DE LA MESA

Queda formada la Mesa de Edad, integrada por Doña Mariam Bilbatua Pérez y Doña Malen Urkullu Arieta-Araunabeña, Concejales electas de mayor y menor edad, respectivamente, según se desprende de las certificaciones recibidas de la Junta Electoral de Zona, Presidiendo Doña Mariam Bilbatua Pérez por ser la de mayor edad y, actuando de Secretario de la misma, el que lo es de la Corporación Don Ramon Sorarrain Tolosa.

CONSTITUCION DEL NUEVO AYUNTAMIENTO

Seguidamente, comprobado que han comparecido la totalidad de los Concejales Electos y cumplidos los trámites legales de toma de posesión del Cargo de Concejales, el Presidente de la Mesa declara legalmente constituida la nueva Corporación.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► Udal Osoko Bilkura - Ayuntamiento Pleno

► Akta 2019ko Ekainak 15

Acta 15 de Junio de 2019

Udalbatza eratu ondoren eta karguaz jabetu ahal izateko Zinegotzi hautatuek karguaren zin egite/hitz ematea burutzen dute.

Jarraian, alkatearen hautaketari ekiten zaio, honetarako, eta aipaturiko ekainaren 19ko 5/1995 lege organikoaren 196 artikuluan ezarritako arautegiaren arabera, ondoren agertzen diren zinegotziak aldarrikatzen dira alkategai bezala:

ALKATEGAIAREN IZENA

Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia andrea, EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO alderdiaren zerrenda-burua.

Ima Garrastatxu Urbaneja andrea, EUSKAL HERRIA BILDU-DURANGO alderdiaren zerrenda-burua.

* **Garrastatxu Urbaneja andreak (EH Bildu-Durango):** Ohorea da niretzat, ohore berezia eserleku honetan lehen aldiz esertzea eta egun berean alkate izateko nire hautagaitza aurkeztea.

Ohore bat da hainbeste jendek egindako lanari esker gaur hemen ni egoera polit eta politiko honetan egotea. Gaur, ekainak 15, gaur egun historikoa da Durangon, historikoa izan zen moduan maiatzaren 26 hura, historikoa da lehen aldiz ezkerreko emakume soberanista batek Durangon alkate izateko aukera duelako.

Hiru galderari erantzungo diet jarraian; horrela, nire burua aurkezteko arrazoiak azalduko ditut.

Constituida la Corporación y para tomar posesión de sus cargos, los/as Señores/as Concejales/as proceden al juramento/promesa del cargo.

Acto seguido, se procede a la elección de Alcaldesa, a cuyo efecto, de acuerdo con la normativa establecida en el artículo 196 de la citada Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, se proclaman candidatos para la Alcaldía a los/as Concejales/as que seguidamente se relacionan:

NOMBRE DEL CANDIDATO:


Doña Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia, cabeza de lista de la formación EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO.

Doña Ima Garrastatxu Urbaneja, cabeza de lista de la formación EUSKAL HERRIA BILDU-DURANGO.

* Concejala **Sra. Garrastatxu Urbaneja (EH Bildu-Durango):** Es un honor para mí, un honor especial, sentarme en este asiento por primera vez y presentar, el mismo día, mi candidatura para la alcaldía.

Es un honor que yo esté hoy en esta bonita situación, en esta situación política, gracias al trabajo de tanta gente. Hoy, este 15 de junio, es un día histórico en Durango, igual que fue histórico aquel 26 de mayo, y es histórico porque una mujer soberanista de izquierdas tiene la oportunidad de ser alcalde de Durango.

Responderé a tres preguntas, y las utilizaré para explicar las razones de mi candidatura.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► Udal Osoko Bilkura - Ayuntamiento Pleno

► Akta 2019ko Ekainak 15

Acta 15 de Junio de 2019

1. Zer lortu genuen Durangon maiatzaren 26an? Erakutsi genuen badagoela aukerarik; badagoela soziologikoki behintzat, Durango modu desberdin baten eraikitzeko gogoia. Argi utzi genuen kanpainan gure aukera ezkerreko indarrak batzea zela, eta ezkerreko indarrak, indar progresistak, botoetan eta eserlekuetan gehiago izan gara.

2. Nola lortu dugu egoera honetan egoitea? Nola lortu dugu tradizioa, inertzia hautsi eta gaur egoera honetan egotea? Besterik gabe, jende askok ez zekielako hau ezinezkoa zenik. Egin zuten, egin genuen, egiten ari gara, ez genekielako ezinezkoa zenik. Are gehiago, geure burua konbentzitzen ari gara baietz, posible zela, denbora alde gurea, eta historiak kapitulu hau jende berriarentzat zuela gordeta, protagonista berri, auzart, zuhur, trebatu, fidagarrientzat, ekarpenak egiteko gogoz zeudenentzat, denboran fosilizatuta gelditzeko arriskuan zegoen zerbaiten aurrean.

3. Zergatik aurkezten du EH Bilduk Herriaren Eskubidearekin batera Ima Garrastatxuren hautagaitza? Aurkezten du -hirugarren pertsona diot ni hemen ordezkari bat baino ez naizelako, neure atzean jende asko daukat zorionez eta gehiago izango garela ez daukat dudarik-; neure burua aurkezten dugu jakin badakigulako orain dela momentua, herriaren babesa lortu dugulako botoetan, eserlekuetan, kaleko aktibazioan eta hurrengo lau urteak garrantzitsuak izango direlako.


Beraz, hemen nago, Durangoko alkate izateko prest. Hemen nago, Durangoko alkate izateko prest. Jaso eta balioa eman nahi diet txikiak diruditen gauzei, botoa emateari, adibidez. Beste gauza

1. ¿Qué conseguimos en Durango el 26 de mayo?. Mostramos que hay opciones, que existe, al menos sociológicamente, la voluntad de construir Durango de otra manera. Dejamos claro en la campaña que nuestra elección consistía en aunar las fuerzas de la izquierda, y las fuerzas de la izquierda, las fuerzas progresistas, hemos sido más tanto en votos como en escaños.

2. ¿Cómo hemos conseguido llegar a esta situación? ¿Cómo hemos conseguido romper con la tradición, con la inercia y estar hoy aquí en esta situación? Sencillamente, porque ha habido mucha gente que no sabía que esto era imposible; lo hicieron, lo hicimos, lo estamos haciendo porque no sabíamos que era imposible, de hecho, nos estamos convenciendo de que sí, de que era posible, de que el tiempo jugaba a nuestro favor y de que la historia reservaba este capítulo a gente nueva, a nuevas protagonistas, valientes, prudentes, capaces, solventes, con ganas de aportar algo nuevo, algo que corría el riesgo de fosilizarse con el tiempo.

3. ¿Por qué presenta EH Bildu junto con Herriaren Eskubidea la candidatura de Ima Garrastatxu? La presenta –y hablo en tercera persona porque yo soy tan solo una representante, tengo, afortunadamente, a mucha gente detrás y no tengo duda de que llegaremos a ser más–, presentamos mi candidatura, porque sabemos que ahora es el momento, porque hemos obtenido el apoyo de la ciudadanía en los votos, en los escaños y en la activación de la calle, y porque los cuatro años que vienen serán importantes.

Por lo tanto, aquí estoy, dispuesta a ser alcaldesa de Durango. Aquí estoy dispuesta a ser la alcaldesa de Durango, recogiendo y poniendo el valor en cosas que parecen pequeñas, como dar el voto, poniendo el valor en otras



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► Udal Osoko Bilkura - Ayuntamiento Pleno

► Akta 2019ko Ekainak 15

Acta 15 de Junio de 2019

batzuei eman nahi diet balioa, askotan esker onik jasotzen ez dutenei, alegia; adibidez, ehunka pertsonak herri honen alde egin duten lanari eta dozenaka zinegotzik egin dutenari, tartean udal honetako zinegotzi ezkertiarak eta subiranistak.

Milaka botoren, ehunka pertsona langileren, ezker suberanistako dozenaka ordezkariaren lana balioan jartzeko prest nago.

* **Elkoroiribe Zenikaonandia andreak (EAJ-PNV):** Jarduneko alkate andrea, udalbatzako kideok, herritarrok, jaun-andreak, lagunok... egun on, denoi. Gaur egun garrantzitsua da Durangon, beste herrietan pasatzen den moduan Udalbatza eratzen delako.

Pasa den maiatzaren 26an egindako udal hauteskundeetan bakoitzak bere proposamen eta taldeak aurkeztu genituen, Durangoren zerbitzura geure burua jarritz.

Nire lehen hitzak udal hauteskunde horietan parte hartutako pertsona guzti-guztiei esker emateko dira: aurkeztutako talde politiko guztiei, hauteskundearen antolakuntzan parte hartu duten guztiei eta, nola ez, bozkatzera joan zineten durangar guztiei, batez ere, nigan eta nik ordezkatzeko dudana EAJ-PNV alderdi politikoan zuen konfiantza jarri duzuen pertsona guztiei, eskerrik asko.

Eta eskerrak eman ondoren, mezu bat igorri nahi diet konfiantza nigan, nire alderdi politikoarengan eta gaur ondoan dudana talde politikoarengan jarri duzuen 5.426 durangarrei. Guran jarri duzue zuen konfiantza datozen lau urteetan gobernatzeko. Zuei guztiei esker, udal hauteskundeetan boto gehien jaso duen alderdi politikoa izan gara. EAJ-PNVk jarraitzen du herritarren konfiantza handiena duen alderdia izaten; Durangon ere bai.

cosas, muchas veces poco agradecidas, como el trabajo que han hecho centenares de personas por este pueblo y docenas de concejales, muchos de ellos de izquierdas y soberanistas en este ayuntamiento.


Estoy dispuesta a poner en valor los miles de votos, el trabajo cientos de personas trabajadores, el de decenas de representantes de la izquierda soberanista.

* Concejala Sra. **Elkoroiribe Zenikaonandia (EAJ-PNV):** Señora alcaldesa en funciones, miembros de la corporación, ciudadanos, señoras y señores, amigos... buenos días a todos. Hoy es un día importante en Durango, porque como en otros municipios se constituye la Corporación Municipal.

En las elecciones municipales del 26 de mayo presentamos cada uno de nosotros nuestras propuestas y nuestros grupos, y nos pusimos al servicio de Durango.

Mis primeras palabras son para dar las gracias a todas las personas que participaron en dichas elecciones municipales: a todos los grupos políticos presentados, a todos los que participaron en la organización electoral, y, cómo no, a todas las personas de Durango que acudisteis a votar, y sobre todo, a todas las personas que depositasteis vuestra confianza en mí o en el partido político que represento, EAJ-PNV. Gracias.

Y tras estos agradecimientos, quiero enviar un mensaje a los 5.426 duranguenses y duranguesas que habéis depositado vuestra confianza en mí, en mi partido político y en el equipo político que hoy está aquí acompañándome. Habéis puesto vuestra confianza en nosotros para gobernar los próximos cuatro años. Gracias a todos vosotros hemos sido el partido político más votado en las elecciones municipales. EAJ-PNV sigue siendo el partido que goza de mayor confianza de la ciudadanía, también en Durango.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► Udal Osoko Bilkura - Ayuntamiento Pleno

► Akta 2019ko Ekainak 15

Acta 15 de Junio de 2019

Ilusioz gainezka aurkeztu genuen geure burua hauteskundeetara, durangarrekin eta talde handi batekin diseinatutako programa bikainarekin. Talde gaztea, gaitua, konpromiso eta ilusio handikoa; gure programa gauzatzeko eta elkarrekin marraztu eta amestu dugun 2030eko Durango lortzeko bidean urratsak egiteko talderik onena.

Gai asko dira mahai gainean dauzkagunak, aukera bikainak daukagu Durango hobetzen jarraitzeko: trenbidearen lurzorua irabaztea, trenbidea bide berdea bihurtzea, airearen kalitatea hobetzeko lan egitea, mugikortasun iraunkorra sustatzea, merkatu plaza indartzea, durangarren beraien bizitza-proiektuak aurrera ateratzeko etxebizitza eta kalitatezko enplegua lortzen laguntzea, gune berdeak sortzea, haur eta gazteentzat lekuak eta ekintzak prestatzea, eta beste asko eta asko.

Durango liderra, industria-eskualde bateko zerbitzu-hiriburua, goi mailako prestakuntzan eskaintza erakargarria duena, kalitatezko enplegua, merkataritza dinamiko eta erakargarria, mugikortasun jasangarriari lotutako eredu eredugarria, berdeguneak eta ume, gazte eta adinekoentzako espazioak eta jarduerak dituen, hemen zaudeten guztiontzat eta Durangon gurekin bizi diren guztientzat bizi kalitatea eta ongi-zatea eskaintzen dituen.

Hori da gure benetako bide-orria, durangarrarena. Abertzaleak gara, Eusko Alderdi Jeltzalekoak gara, herri hau maite dugu, hemen bizi gara harro gainera, eta bere alde lan egiten dugu, bide demokratikoak jorratu ditugu eta jorratuko ditugu beti, lehen, orain eta beti eta bide horretan jarduten jarraituko dugu, herri honen alde, Durangoren alde.

Hori guztia dela eta, Durangoko alkate izateko nire hautagaitza aurkeztu dut, erakundearekiko begiruneagatik, hauteskudeen


Nos hemos presentado a estas elecciones con muchísima ilusión, con un magnífico programa que hemos diseñado junto con los y las durangarras y con un grandísimo equipo, un equipo joven, preparado, comprometido e ilusionado; el mejor equipo para llevar a cabo nuestro programa y para avanzar hacia el Durango de 2030 que hemos dibujado y soñado juntos.

Son muchos los temas que tenemos encima de la mesa; tenemos excelentes oportunidades para seguir mejorando Durango: ganar terreno del ferrocarril, convertir la vía del tren en vía verde, trabajar para mejorar la calidad del aire, promover la movilidad sostenible, fortalecer la plaza del mercado, ayudar a los durangueses a obtener vivienda y empleo de calidad para que lleven a cabo sus proyectos de vida, crear zonas verdes, preparar espacios y actividades para niños y jóvenes y muchos otros temas.

Un Durango líder, capital de servicios de una comarca industrial, con una oferta atractiva de formación superior, con empleo de calidad, con un comercio dinámico y atractivo, con un modelo ejemplar de movilidad sostenible, con zonas verdes con espacios y actividades para niños, niñas, jóvenes y mayores, con calidad de vida y bienestar para todas las personas que estáis hoy aquí y para las que nos acompañan en todo Durango.

Esa es nuestra verdadera hoja de ruta, la de los durangueses. Somos nacionalistas, somos del Partido Nacionalista Vasco, amamos a este pueblo, vivimos aquí, y orgullosos de hacerlo, y trabajamos a su favor. Hemos tomado caminos democráticos y así lo haremos siempre, en el pasado, ahora y en el futuro, y seguiremos trabajando por ese camino, a favor de este pueblo, a favor de Durango.

Todo ello me lleva a presentarme hoy como candidata a la alcaldía de Durango por respeto a la propia institución, por



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► Udal Osoko Bilkura - Ayuntamiento Pleno

► Akta 2019ko Ekainak 15

Acta 15 de Junio de 2019

sistema demokratikoarekiko begiruneagatik eta nigan konfiantza jarri duzuen pertsona guztiekiko begiruneagatik. Boto gehien jaso dituen indarraren ordezkari gisa aurkeztu dut nire burua gure proiektua gauzatzeko, betiere, besteekin akordioak egiteko eskua luzatuta jarrita, entzute aktiboa, gertutasuna, umiltasuna, eskuzabaltasuna eta zuhurtzia oinarritzat hartuta. Eta Durango eta durangar guztien interesak eta ongizatea babesteko garaian, irmotasuna eta zorroztasuna oinarri hartuta.

Ondo dakit zein den hauteskondeek emandako udalbatzaren aritmetika eta agindu argi bat atera da hortik denontzat: adostu beharra, Durangok aurrera egin dezan adostu beharra dago udalbatza honetan eta gu prest gaude batzuekin zein besteekin adosteko.

Azken aste honetan banaka esan dizuedan bezala, gaur publikoki ere adosteko konpromisoa hartzen dut. Guk proiektua, lan talde bikaina eta durangarren konfiantza daukagulako aurkeztu dugu gaur alkateztarako hautagaitza, durangar garen heinean Durangoren alde lan egiteko. Durangarren nahaiak, kezkak, ardurak, entzun eta defendatu egingo ditugu arduraz eta erantzukizunez.

Lan asko daukagu denok aurretik, nik eta nirekin dauden taldekide guztiek gogor lan egingo dugu, durangarrekin batera amesten dugun Durango 2030ean egi bihurtzeko.

* * * *

* Adin-Mahaiaren Presidenteak **Bilbatua Perez andreak (EH Bildu-Durango)**: Egin beharreko irizpideak burutu eta gero, ondoren, alkatea aukeratuko da isilpeko botoaren bidez. Adin mahaiak zinegotzi jaun-andreak deituko ditu eskualdeko

respeto al sistema democrático de elecciones y por respeto a todas las personas que habéis depositado vuestra confianza en mí. Me presento como fuerza más votada para llevar a cabo nuestro proyecto con la mano siempre tendida al acuerdo entre diferentes, desde la escucha activa, desde la cercanía, desde la humildad, la generosidad y la prudencia. También desde la firmeza y el rigor cuando se trate de defender Durango y los intereses y bienestar de los y las durangarras sin excepción.


Sé muy bien cuál es la aritmética de la corporación como resultado de las elecciones y se nos ha trasladado un claro mandato a todos: la necesidad de acuerdo. Hay que buscar acuerdos en esta corporación para que Durango avance y nosotros estamos dispuestos a llegar a acuerdos tanto con unos como con otros.

Tal y como os he expresado individualmente esta semana, hoy asumo también públicamente el compromiso para acordar. Nosotros presentamos hoy la candidatura para la alcaldía, porque tenemos un proyecto, un grupo de trabajo excelente y la confianza de los duranguenses, para trabajar a favor de Durango, ya que somos duranguenses. Escucharemos y defenderemos con responsabilidad los deseos, las preocupaciones y las inquietudes de los duranguenses.

Tenemos todos mucho trabajo por delante, y tanto yo como todos los miembros de mi grupo que me acompañan, trabajaremos duro, para que en el 2030 se haga realidad el Durango que soñamos junto con los duranguenses.

* * * *

* Presidenta de la Mesa de Edad **Sra. Bilbatua Perez (EH Bildu-Durango)**: Realizados los trámites necesarios, a continuación, se elegirá al alcalde mediante voto secreto. La mesa de edad llamará a las y los concejales en el orden



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► Udal Osoko Bilkura - Ayuntamiento Pleno

► Akta 2019ko Ekainak 15

Acta 15 de Junio de 2019

hauteskunde batzordeko egiaztagirietan agertzen den ordena jarraituz zinegotziok botoa eman dezaten horretarako prestatu-riko hautesontzian.

que figura en los certificados de la junta electoral de zona, para que depositen su voto en la urna correspondiente.

Lekutariko zinegotziek bozkatu egiten dute isilpeko papeletaz eta urnan utziz.

Los Concejales asistentes proceden a la votación con papeleta secreta y depositada en una urna.

Bozketa amaitu ondoren botoen zenbaketari ekiten zaio honako emaitza honekin:

Acabada la votación se procede al recuento de votos con el resultado siguiente:

Emandako botoak	21.
Boto zuriak	2.
Boto nuloak.....	0.

Votos emitidos	21.
Votos en blanco	2.
Votos nulos	0.

HAUTAGAIAREN IZENA ETA BOTU-ZENBATEKOA.

NOMBRE DE LOS CANDIDATOS Y VOTOS OBTENIDOS

❖ Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia Andrea: 8.

❖ Doña Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia: 8.

❖ Ima Garrastatxu Urbaneja andrea: 11.


❖ Doña Ima Garrastatxu Urbaneja: 11.

Ekainaren 19ko 5/1995 lege organikoaren 196 c) artikuluan ezarritakoaren arabera **Ima Garrastatxu Urbaneja andrea (Euskal Herria Bildu-Durango)** hautatzen da eta Alkate andrea izendatua geratzen dela adierazten da.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 196 c) de la citada Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, resulta elegida **Doña Ima Garrastatxu Urbaneja (Euskal Herria Bildu-Durango)** manifestándose que queda proclamada Alcaldesa.

Ima Garrastatxu Urbaneja Alkate andrea izendatu ondoren, honek, karguari dagozkion beharrianak zintzoki betetzeko hitza ematen du.

Tras la proclamación de Alcaldesa de Doña Ima Garrastatxu Urbaneja, acepta el cargo y presta promesa de cumplir fielmente las obligaciones del cargo.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► Udal Osoko Bilkura - Ayuntamiento Pleno

► Akta 2019ko Ekainak 15

Acta 15 de Junio de 2019

* Alkatea Garrastatxu Urbaneja andreak (EH Bildu-Durango): Nahi gabe, konturatu gabe bizitza politika egiten pasatzen dugu, parte hartzen, iritzia ematen, eztabaidetan, gestio desberdinetan, maitatzen... gure bizitzak politikoak dira, argi eta garbi. Eta gaurtik aurrera hemen nago, zuen aurrean, lau alderdietako zinegotzien aurrean, gure helburu izango diren herritarren aurrean, bitartekari lana egingo duzuen komunikabideen aurrean; zuen denon aurrean nago bizitzan izan dudak kargurik politikoenarekin.

Zuon guztion alkate izango naiz hurrengo lau urteetan. Eskerrak emateko erreztasuna daukat, eskerrak ematea gustuko dut; uste dut eskerrak emateak eskerra ematen duen pertsonari egiten diola mesede eta ez hainbeste eskerrak jasotzen dituenari. Gaur, horregatik, nigitik bereziki, beharrezana sentitzen dut hau posible egin duzuen guztioi eskerrak emateko.

Eskerrak, lehendabizi, Herriaren Eskubideari, eskerrik asko zuen konfidantza boto bihurtzeagatik, pieza klabea zarete; espero dut zuentzat eta ordezkatzun duzuen denentzat alkate baliogarria eta duina izatea. Eskerrik asko baita ere gaur beste alternatiba baten alde egin duzuen guztioi, eskerrik asko Mireia eta ordezkatzun duzun guztiori. Garrantzitsuak zarete eta ekarpen handia egingo diozue herri honi, ziur nago. Espero dut bidean sarri topo egitea Durangoren alde lan egiten.

Eskerrik asko, bihotzez, maitasunez gure ideiak, gure baloreak, gure munduaren ikuskerak udaletxe honetan legegintzaldi guztietan zinegotzi lez defendatu dituzuenoi, badakit exigenteak izango zaretela, baina badakit behar dugun bakoitzean hor egongo zaretela, kontuen, paperen, dekretuen eta emozioen gestiorako prest.

Mila esker, bereziki, jendeari, botoa eman


* Sra. Alcalde Garrastatxu Urbaneja (EH Bildu-Durango): Sin querer, sin darnos cuenta, nos pasamos la vida haciendo política, participando, dando nuestra opinión, debatiendo, realizando gestiones, amando... nuestras vidas son, claramente, políticas. Y de hoy en adelante, aquí estoy, delante de vosotros, delante de los concejales de cuatro partidos, delante de los ciudadanos que serán nuestro objetivo, delante de los medios de comunicación que actuaréis de intermediarios; estoy delante de todos vosotros con el cargo más político que he ostentado en mi vida.

Seré alcaldesa de todos vosotros en los cuatro años que vienen. Tengo facilidad para dar las gracias; me gusta dar las gracias; creo que dar las gracias beneficia a la persona que las da y no tanto a la que las recibe. Hoy, por ello, sobre todo por mí, siento la necesidad de dar las gracias a todos los que habéis hecho que esto sea posible.

Gracias, primero, a Herriaren Eskubidea, gracias por convertir vuestra confianza en voto, sois una pieza clave; espero ser una alcaldesa válida y digna para vosotros y para todos los que representáis. Gracias, también, a todos los que hoy habéis votado a favor de otra alternativa. Gracias a ti, Mireia, y a todo lo que representas. Sois importantes y haréis una gran aportación a este municipio, estoy segura. Espero que nos encontremos en el camino a menudo trabajando a favor de Durango.

Gracias, de corazón, a los que habéis defendido nuestras ideas, nuestros valores y nuestras formas de entender el mundo, con amor, desde la posición de concejal en este ayuntamiento durante todas las legislaturas. Sé que seréis exigentes, pero sé que estaréis cada vez que necesitemos, dispuestos para la gestión de cuentas, papeles, decretos y emociones.

Gracias, especialmente, a la gente, a to-



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► Udal Osoko Bilkura - Ayuntamiento Pleno

► Akta 2019ko Ekainak 15

Acta 15 de Junio de 2019

eta historian lehen aldiz, Durangon, emakume ezkertiar, feminista, soberanista bat alkate izatea posible egin zuten guztiei. Mila esker, gaur aldaketa hau egiteko bidea eman duten indarren alde egin zutenei eta beste alderdi politiko batzuei botoa eman zietenei. Gure erronka handia da datozen lau urte hauetan jende hori entzuna, errespetatua eta babestua sentitzea. Ziur gaude, umiltasunez, partaidetzan oinarrituta eta ahalegin handia eskainita lan eginda, Durango, oraingoa eta etorkizuneko, inor soberan izango ez duen proiektu kolektibo eder bihurtuko dela.

Eskerrik asko, baita ere, arrazoi desberdinentzat maiztaren 26an gurekin egon ezin izan zinetenoi, bereziki arrazoi injustuentzat Durangotik urrunduta egotera kondenatzen dituzten horiei. Ezinezkoa zela ez zekitelako, ezinezkoa zen hura, us-tez ezinezkoa zena, posible egin behar zutela tematu ziren.

Nork esango zigun duela hamarkada batzuk, emakumeok kargu politikoak izango genituela; nork esango zigun ezkertiarrek, balio progresistadunek orain adinako ordezkari izango zutenik udal honetan; nork esango zidan niri duela 26 urte emakume feminista, ezkertiar, independentista, familia langilekoa eta langile-kontzientziaduna, Trapagan jaio eta kanpotik etorritako beste hainbeste bezala Durangora bizitzera etorritako emakume bat herri honetako lehen alkate izango zela gaur hasi den historia berri honetan. Konplexuak alde batera utzi ditu Durangok eta biziberritzeko prest dago. Hori izango da gure helburua, Durango jendearekin, modu kolektiboan, biziberritzea.


Durango prest dago, indarberrituta, behetiko historiaren kapitulu berri bat idazteko nago. Milaka esku dauzkagu parte hartzeko prest, udaletxeko ateari joko, eta zuontzat guztiontzat ateak irekita egongo dira. Durangon jende asko sentitu izan da ahotsik

das las personas que votaron y que hicieron posible que, por primera vez en la historia, una mujer de izquierdas, feminista, soberanista, sea alcaldesa de Durango. Gracias a quienes optaron por las fuerzas que posibilitan hoy este cambio y quienes votaron por otros partidos políticos. Nuestro gran reto es que durante estos cuatro años toda esta gente se sienta escuchada, respetada y arropada. Estamos seguras de que nuestro trabajo con humildad, con participación, con mucha dedicación conseguirá convertir Durango, su presente y su futuro, en un gran proyecto colectivo donde no sobre nadie.

Gracias, también, a los que el día 26 de mayo no pudisteis estar con nosotros; especialmente a los que, por razones injustas, son condenados a estar lejos de Durango. Porque no sabían que era imposible se empeñaron en hacer posible lo imposible, lo supuestamente imposible.

Quién nos iba a decir hace algunas décadas que las mujeres ocuparíamos cargos políticos; quién nos iba a decir que la gente de izquierdas, la gente de valores progresistas, estaría tan representada en este ayuntamiento; quién me iba a decir a mí hace 26 años que una mujer feminista, de izquierdas, independentista, una mujer de familia trabajadora y con conciencia obrera, nacida en Trapaga y que vino a vivir a Durango como tanta gente que ha venido de fuera, iba a ser la primera alcaldesa de ese pueblo durante esta nueva historia que empieza hoy. Durango se ha quitado los complejos y está dispuesta a revitalizarse, ese será nuestro objetivo, revitalizar Durango con la gente, colectivamente.

Durango está preparado, revitalizado, estoy aquí para escribir un nuevo capítulo de la historia, desde abajo hacia arriba. Tenemos miles de manos dispuestas a participar, tocando la puerta del ayuntamiento, y todos vosotros tendréis las puertas abiertas. Es una realidad que ha habido



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

► **Udal Osoko Bilkura - Ayuntamiento Pleno**

► **Akta 2019ko Ekainak 15**

Acta **15 de Junio de 2019**

gabe, udalaren eta gobernuan izan direnen aurrean indargabe, eta hori aldatu beharra dago. Inork ez luke sentitu behar ez dela entzuna; izan ere, herriak agintzen du eta gobernuak, berriz, obeditu eta herriaren aginduak kudeatu.

Herritarrengandik gertuen dagoen erakundea gara, udala, udaletxea, herritarron etxea. Pertsonak gertuen, hurbilen duten erakunde publikoa gara, seme-alabentzat ama zer den, hori gara gu. Nirea gaur eseri da lehen aldiz udal honetako osoko bilkuran, alaba ia 30.000 biztanleko herri bateko alkate duela ikusteko. Eskerrik asko, ama.

Amaitzeko, hiru hitzetan laburtuko dut gure asmoen adierazpena; hiru hitz hauek laburbiltzen dute gure kudeaketa-lana izango dena: elkarriketa, gardentasuna eta parte-hartzea Durango modu kolektiboan biziberritzeko. Elkarkidetza, gardentasuna eta parte-hartzea, Durango elkarlanean biziberritzeko.

Bukatzeko, politika egiteko modu berria etorri da eta geratzeko etorri da, lau urte barru aurpegiak aldatu daitezke ala ez, baina auzo-asanbladak, gardentasuna, herritarrekin harreman zuzena, ate irekiak... horiek guztiak geratzeko etorri dira. Durangon kudeaketa maitasunetik egiteko modua geratzeko etorri da. Eskerrik asko.

mucha gente en Durango que se ha sentido sin voz, impotente ante el ayuntamiento, ante quienes les gobernaban, y eso debe cambiar; nadie puede sentirse no escuchado porque el pueblo manda y el gobierno obedece y gestiona sus mandatos.

Somos la institución más cercana a la ciudadanía, el ayuntamiento, la casa de los ciudadanos. Somos la institución pública más cercana, más próxima que tienen las personas, somos como esa madre para cualquier hijo o hija. La mía se ha sentado hoy por primera vez en el pleno de este ayuntamiento para ver a su hija ser la alcaldesa de un pueblo con casi 30.000 habitantes. Gracias, ama.

Termino resumiendo en tres palabras toda una declaración de intenciones, tres palabras que resumirán nuestra gestión: diálogo, transparencia y participación para revitalizar colectivamente Durango. Colaboración, transparencia y participación, para revitalizar Durango trabajando juntos.

Para terminar, ha llegado una nueva forma de hacer política y viene para quedarse. Dentro de cuatro años se pueden cambiar las caras o no, pero las asambleas de los barrios, la transparencia, el contacto directo con los ciudadanos, las puertas abiertas... Todo eso ha llegado para quedarse. La gestión desde el cariño y el afecto en Durango ha venido para quedarse. Gracias.



Alkate andrearen lehendakaritza -
pean korporazioa eratua geratu ondoren, egintza amaitutzat ematen da 13:00etan, honako agiri hau luzatuz, eta, neuk, idazkariak, fede damait.

Constituida la Corporación bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa, se da por finalizado el Acto levantándose la sesión a las 13:00 horas; de todo lo cual se extiende la presente Acta, doy fe, el Secretario.